

FITXA: 230 - - Europar Hiri Ekimenaren (EUI) Deialdia - Ekintza Berritzaileak (4. deialdia)

Nori zuzendua:

- Europar Batasuneko udalak eta hiri-agintaritzak
- Udal multzoak edo hiri-eremuak
- Gutxienez 25.000 biztanle dituzten toki-erakundeak - Beste erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan parte hartzeko aukera.

Oharra: Eskualdeek edo udal-elkargoek parte hartu ahal izango dute baldin eta hiri-agintaritza gisa aitortutako egitura administratiboa badute. Bestela, udal batek lider gisa aurkeztu beharko du eskaera, eta gainerako udalak proiektuko bazkide gisa sartu.

Deialdia: EB - EUROPAR BATASUNA **Deialdiaren data:** 2026/02/25 (EUI)

Sarbide-esteka:

[4th Call - Innovative Actions | EUI](#)

Erreferentziazko araudia: Erreferentzia-baldintzak - EUIren Ekintza Berritzaileen 4. deialdiaren

https://www.urban-initiative.eu/sites/default/files/2026-02/00_EN_ToR_4th%20EUI-IA%20Call%20for%20Proposals_ES.pdf

Eragin eremuak: Berrikuntza, Hiri-garapena, Energia,Mugikortasuna eta Gizarte-inklusioa

Zenbatekoa: 60.000.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/02/25

Aurkezteko azken eguna: 2026/06/15

Aurrerakina: Proiektuaren exekuzioan FEDER finantzaketaren ordainketa aurreratuak aurreikusten dira. **Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Proiektu bakoitzeko gehienez 2.000.000 € (kostu osoaren %80 gehienez) **Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Hiriak buru dituzten proiektu pilotu berritzaileak finantzatzeko Europako deialdia, tokiko testuinguruan irtenbide berriak garatuz hiri-erronkei aurre egiteko. Hiri-garapen jasangarrian esperimentazioa sustatzen du, Europako beste hiri batzuetan errepikatzeke aukerarekin.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Hiri-inguruneetan irtenbide berritzaileak garatu eta probatzea
- b) Proiektu pilotuak benetako baldintzetan ezartzea
- c) Hiri-erronka konplexuei aurre egiteko jarduera integratuak
- d) Beste hiri batzuetara transferitzeko ahalmena duten proiektuak

Jarduera-ildoak

- a) Berrikuntza, digitalizazioa eta lehiakortasuna
- b) Gizarte-inklusioa eta berdintasuna
- c) Etxebizitza eskuragarria eta jasangarria
- d) Klima-ekintza, ingurumena eta energia
- e) Hiri-mugikortasun jasangarria
- f) Segurtasuna eta hiri-erresilientzia

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

- *Proiektua garatzeko eta ezartzeko kostuak
- *Proiektuaren giza baliabideak eta kudeaketa
- *Berrikuntza, probak eta ebaluaziorako jarduerak
- * Lankidetzari eta exekuzioari lotutako kostuak

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuek 24 hilabeteko iraupena izango dute gehienez, aurreko faseak eta administrazio-itxierakoakbarne.